

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Hagintea

ABUZTU AMAIERAKO bero saldak soildu ederra eman dio lantokiko atarian gaituen intxaurrondoari. Iharztearen bihurrituaren bihurrituaz orbeldutako hostoak hego haizearen dantzari politak dira belar gainean. Eta imajinak poesia dakar burura, P.D. Jamesen *Death in Holy Orders* nobela ederreko puska poetikoa; neure gutxi gorabeherako lasaian honela dio: “Etxarte erdian, indi gaztaina zaharkitu batek udazkeneko hondamenaren hasiera erakusten zuen. Zarakar itxurako azal puskak galtzen zituen enbor bihurriaren oinean, udaberriko puntta berriak bezain hosto samurrak eta berdeak zituzten sortu zaharrak ez ziren altsumek. Gorago, adartzarrak hori eta marroiz jantziak, eta hosto iharrak, hatz momifikatuen gisara, ximel eta hauskor ageri ziren kaobakolore distiratsuzko gaztaina artean”.

Hosto iharrak tankeratsukoak, baina egurrean indi gaztainak (*Aesculus hippocastanum*) eta intxaurrak (*Juglans regia*) badute aldea, alde nabarmena. Hark egur biguna, samurra, makala du, honek aldiz, gogorra, iraunkorra, trinkoa.



Hagina (*Taxus baccata*).

© MATTHIEU SONTAG, CC-BY-SA, WIKIMEDIA COMMONS

Intxaur zura beltz ordaintzen da, eta beltza bada gehiago, beltzago. Beltza baino beltzagoarik ba ote da, bada? Bai alazankua! Gorria da beltza baino beltzagoa, haginaren egur gorria.

Hagina, *Taxus baccata*, intxaurren baino milaka urte lehenagotik gurtu dugu, eta lizarra eta artearekin batera gure atarietako zuhaitz magikoa izan da. Milaka urte bizi ohi da eta aldamean duen etxeko odolaren historia aberatsa eta etorkizun oparoa adierazten du. Intxaurren geurera ekarri zuten erromatarrek, diruak dena erosten duela erakutsi ziguten. Eta beltz edo gorri eskatuegatik, ordaindu eta desagertuak dira gure haginaga onenak, baita atari-aurretako

bakanak ere. Gure historia eta etorkizuna salduak. XVI-XVIII. mendeetan Ingalaterrara burdina saltzez gero, hagin enborrez lagunduta joan behar zuen, armadak behar zituen arkuak egin ahal izateko. Diruak akabatu zuen garestiena. Eta geuk galdu agintea. Hala hagintea idatzi beharko genuke? Agintea hagin sakratutik datorrela idi-parea jokatuko nuke!

azkonobieta
basogintza lanak

baso-berritzeak
kimatze lanak
abereentzako itxiturak

© 943 694 554 / 656 720 607
Goiballara · Azkonobieta Berri z/g
20159 Asteasu (Gipuzkoa)